

## KA Topaketa #10(30.08.2015) Impact HUB Donostia

Espazioa, Impact HUB-ek uzten digu. Gainera KA-ri kolaboratzeko aukerak irekitzen dizkio esparru ezberdinetan, bai enpresaritza eremuan eta baita eremu sozialean ere. HUB-ek ia kooperatiba bat bezala funtzionatzen du. Eragile ezberdinak kontaktuan jartzen ditu berrikuntza soziala errazteko.

### PARTAIDE BERRIAK

- ✚ **Susana:** Pintura eta espektakuluak (La trastienda)
- ✚ **Killyan:** Tatuatzailea. Grafikoak (Imprenta). Artisautza. Sukaldaritza
- ✚ **Lur:** Abeslaria. Aktorea. Umeentzako ekimenak (ipuin kontaketak, txotxongiloak...)
- ✚ **Asier:** Siracusako (Sizilia) HUB-en bitartez, ekintza kulturaletan parte hartu du hainbat urtez. Trikitalaria. Komentatzen du, HUB “Open Innovation”-era bideratuta dagoela eta “Smart Cities” bezalako proiektuetara. Hauek, KA-n lekua izan dezaketela uste du.

Beti bezala, KA-ren laburpen bat egiten da eta ibilbidea komentatzen da.

### KA-REN BALOREAK. BALOREEN LAN TALDEA ETA KOORDINAZIOA

Azken topaketako Makoki-ren proposamenari helduz, baloreen lan talde bat sortzeko beharra planteatzen da. Talde honek erabaki beharko du zein balore orokor defenditu behar dituen KA-k publikoan, ekimen orokor edo partikularretan, komunikazioan... Hau da, zein irudi eman nahi duen eta zein balorerekin lotu nahi den KA.

Berez, oinarrizko balore batzuk ezarriak zeuden lehen topaketetatik, baina orain zehaztasunera jo behar da. Izaera politikoa izango duen ala ez, soziala, berdintasuna defendatuko duen, eleaniztasuna, ingurugiroa, eta batez ere, nola egingo den.

Dekalogo bat planteatzea proposatzen da balore zehatz edo orokorren proposamenei e-maila irekiz, lan talde bat sortu aurretik.

Debatea, puntu zail batzuetara iritsi daiteke, balore hauek hain garbi definitzeagatik. Desadostasunak sor daitezke eta aukera artistikoak ixtea

ere ekar dezake. Beti bezala, zailena muga batzuk zehaztea da eta KA-ren makineria ondo mugitzen jakitea eztabaidak sortu gabe eta beste lan batzuk zapaldu gabe.

Aurrerago, Koordinazio taldearen gaia jorratzen da. Baloreen lan taldeko funtzioak bere gain har ditzakeela planteatzen da, hasiera batean behintzat. Talde honek, gainontzeko talde aktibo guztiak koordinatuko ditu eta talde bakoitzeko bozeramaile batekin integratuko da, talde guztiek informazio puntuala izan dezaten eta komunean dituzten gaietan elkarrekin aurrera egin dezaten, 15 egunero egingo dituzten bileretan.

Printzipioz Koordinazio edo "akzio" talde honek, Iñaki Arizmendi-k aurreko topaketetan komentatzen zuen bezala, lehen helburu bezala, programaturiko diren 100 ekimenak izan beharko lituzkeela komentatzen da. Espazio berriak irabazteko eszena artistiko lokalarentzat, iragankorrak izan ez daitezkeen eta baimenen gaia ekimen bakoitzerako modu global batean planteatzeko, KA-ren izenean, instituzioekin palanka eginez.

Baloreen gaia ixteko, inkesta bat egingo da email bitartez, ikusteko jendeak zer pentsatzen duen gai orokorren inguruan.

### **GAZTEAK. NOLA BULTZATU BELAUNALDI ALDAKETA**

Azken topaketetan alde batera utzi den gai bati heltzen zaio, Esther Uriak Gipuzkoako hezkuntza zentro ezberdinetan egiten ari den aurkezpenarekin bat egiten duena, "Gure Begiradak". Idatzizko deskribapen batekin azaltzen du. Gazteengana heltzeko ideia lehenago Karmenek komentatu zuen lehen bileretan, eta hainbat pertsona batu zaizkio, gaia bilera honetara atzeratu den arren. Zuzenean 12-17 urteko gazteengana jotzea da ideia, hezkuntza zentroetara joaten eta gure laguntza, bultzada, materialak eta ikuskapena eskainiz, gazteen zaletasun artistikoei begira. Sare sozialen erabilera baloratzen da, prozesu osoa ezagutarazteko eta bereziki, azken emaitza. Helburua, hezkuntza zentroetan ekimen multidisziplinarrak planteatzea da, ikasleek aurrera eramanda, bultzada hori gabe (baita morala ere) ez zirelako gauzatuko.

Gainera, tailer ezberdinak planteatzen dira, beste arte batzuk eta aurrera eramateko beste modu batzuk badirela ikus dezaten.

Idea, ez da esatea zer behar duten eta zer egin behar duten, baizik eta entzutea zer behar duten eta zer nahi duten eta gu horretara moldatzea. Euren eszena propioa sortzen laguntzea da. Ez gurea inposatzea. Gainera, ekimenetara joatea, hezkuntza, balore kulturalak eta ekimen kultural eta artistikoen atzean dagoen lana baloratzea ekarriko duen alde pedagogikoa ere egongo da. Hasieratik ekimenetara bideratutako tailerrak planteatzen dira, izaera multidisziplinari eta interaktiboarekin. Lehen proposamenak antzerki tailerretatik (Esther-ek planteatzen duenarekin fusionatu daitezkenak) pintura, graffitiak, tatuajeak, kustomizazioa... arte doaz. Momentuz Iñaki, Karmen, Makoki, Santi, Killyan, Lisandro eta Igor integratuko dituen talde bat proposatzen da.

### **DONOSTIA 2016 ETA PIRATERIA**

Gai hauek Sorayak proposatu zituen arte plastikoei eremu publikoan eragiten dizkien traben aurretik. Traba hauek instituzioen aldetik, datoz zati batean, baina bestetik, baita arte honi egiten zaion erabilera komertzialetatik ere. Batez ere, erabilera komertzial hau egileen baimenik gabe egiten denean. Honek ekartzen duena zera da, egindako lanaren ordainetan irabazirik ez jasotzeaz gain artistaren garapen eta ezagutarazte aukerak ezabatzea.

Hau oso larria da, batez ere, ikusarazpen gutxi duten arte motetan.

Donostia 2016 inguruan, komentatzen da programa ofizialetan parte hartzen duten arte mota guztiek, Olatu Talkan adibidez, eskubide berberak dituztela produkzio gastuak estaltzeko eta hau lortzeko KA plataforma bezala joatea planteatzen da eta proposamen ezberdinak aurkeztu bai Olatu Talkan eta baita beste antzeko ekimenetan ere.

Traba burokratikoari dagokienez, artista egoera babesgabe batean uzten dute eta mila tramite egitera, energia, denbora eta epe luzera dirua ere gastatzera behartzen dute, ia automatizatuta egon beharko lukeen prozesu batean. KA-ren 2016-ko 100 ekimenei begira, tramiteak egitera plataforma bezala joatea planteatzen da tramiteak azkartzeko.

Azken helburua, tramiteen azkartzea KA-ren 100 ekimenetatik haratago joatea litzateke eta denboran irautea 2016-tik aurrera.

## JIALDI ANTIMILITARISTA ETA KA-REN 100 EKIMENAK

Demagun-ekin bilera egitea falta da jaialdian KA-k izango duen partaidetza zehazteko. Printzipioz 13.000€-ko aurrekontua du jaialdiaren aurrekontu osoarekiko (180.000€). Zati handiena produkzioa eta artista nagusiak ordaintzeko erabiliko da.

Demagun, jaialdiaren zati sozialaz arduratzen da, bere filosofia eta baloreak ezagutaraztea, debatea jaialdia baino lehenago, jaialdiaren unean, eta amaitu ondoren planteatzea eta KA-ko ekimenei norabide bat emateaz.

Inmusica, zati logistikoaz, eszenatoki nagusien produkzioaz, programazioaz... arduratzen da. KA-k beste esparru batzuetatik jaialdia zabaltzeko aukera izango du jaialdiak irauten duen bitartean era multidisziplinari batean eta jaialdiaren baloreen ikuspegi artistiko bat emanez.

Santo Bosch eta Susana jada obrak planteatzen ari dira, hainbat gairen inguruan, horien artean, gatazka armatuetatik ihes egiten dutenen Europarako inmigrazioa.

KA-ren 100 ekimenei buruz, (funtsean, hiru egunero bat) "unidisziplinarrak" izango direla planteatzen da, izan ere, ekimen bakoitzeko 200€ -rekin ez da bideragarria beste formaturik. Hala ere aukerak planteatzen dira aurrekontua biderkatzeko (ostalarien laguntza, sponsorrak...)

Ekimen hauen funtzioa, KA ezagutaraztea da, hazten laguntzea, eta eszena lokala bultzatu eta hobetzea, ekimen bakoitzeko artistak behintzat bere gastuak estaliz eta ezagutaraziz. Baimenak era azkarrean tramitatu daitezken, eta ekimenaren atzetik dagoen esfortzua baloratu dadin.

Diru kontuek (espero zen bezala) debate garrantzitsu bat sortzen dute, izan ere, Kultura Alternatiboa eta Oinarrizko Kultura bultzatzen duen Plataforman artista profesionalak, semi profesionalak eta amateurrak nahasten dira, eta badira batzuk espresio artistikoa hobby bat bezala dutenak eta ordainsaria zerbait ia "toxikoa" bezala baloratzen dutenak.

KA, plataforma ireki bezala, “arima” guzti hauek ditu, baina bere baloreetan artistaren duintasuna babesten du, baliabideen lorpena eta eszena lokalaren bultzada, horregatik piramide bat ezartzen da non “kobratzen” edo “gastuak estaltzen” lehena artista den, eta ondoren produkzio gastuak, promozioa... estaltzen diren.

Hurrengo topaketetan zeresana emango duen gaia izango da baina Urtarrila aurretik itxita egon behar du, garai horretan hasten direlako diru-laguntzak eta ekimenen programazioak.

### **KA AFARIA. KA-REN LEHENENGO URTEURRENA**





KA-ren partaide guztientzat afari bat proposatzen da, non KA Zuzenean berri bat barneratuko duen. Art 21 espazioa proposatzen da baina zabalik geratzen da Grosen leku zehatza zehazten den arte. KA-ren lehen urteurrena ospatzeko aprobetxatuko da.

Jaialdiaren eta afariaren data eta formatua ixten dira. Irailak 19.

Afaria picnic moduko bat izango da, non partaide bakoitzak egokiena ikusten duena eramango duen. Produkzio aldetik, baxu anplifikadore bat eta gitarra anplifikadore bat dugu eta ahots ekipo batekin osatuko dugu.

Azkenik, topaketa amaitzean Endika DBBR pub-ekoa KA familiara batzen dugu.

Sortu diren lan taldeak (jende gehiagorentzat zabalik)

-  **Gazteak:** Lisandro, Karmen, Makoki, Soraya, Iñaki Arizmendi, Esther Uria
-  **KA-ren 100 ekimen:** Roberto, Antxón, Igor, Soraya, Jokin
-  **KA-ren lehen urteurrena:** Antxon, Lisandro, Soraya, hodei, Jokin
-  **Koordinatzaileen lan taldea:** (Oraindik betetzeko)